

HIRU IKASLE

Nabarnizko Gabika auzoko Maripa Ispizuak kontatuta

Gure ipuinetako ikasleak oker, alper, amarrutsu, buru zorrozdunak izan oi dira guztiak. Honelakoxeak ziren behin Bilbon elkar bat egin zutenak ere. Zuten diru apurrak irazi, ikasteari itxi, lanerako nagi eta nakar, goian zerua eta behean lurra zutela,

- Zerbait egin behar dugu estualdi honetatik irteteko –zioen.

Euretatik irtenenak.

- Zuk –esan zenion batari-, nondik edo handik ardoa ekartzeko.

Besteari:

- Zuk haragia, behikiarena zein txerriarena, haragia izan dadila behintzat.

Nik ogia ekarriko dut.

Bakoitza bere aldetik gauzon bila hasi ziren. Lehengoak zaragi bat, norbaitengandik zuzenduta, urez beterik zutela, ardo-tegi batera bidea hartu zuen. Txiriboginari (tabernariari) urlia aberatsaren morroia zela esan zion eta zuen eredia ez zela hainbestekoa eta aldatzea nahi zuela bere ugazabak.

- Aberatsari edozein mesede egin behar zaio eta ekarri ona zaragi hori eta hartu horren orde z berroren esteriako bat.

Estudianteak bere zaragi itxi eta bestea besapean zuela etxera bidea hartu zuen.

Bigarrena azokara joan zen haragi bila. Ahari bat urruntxotik ikusi eta pozik urreratu zen beregana. Laster egin zuen egiunea (tratu) bere jabearekin.

- Erdu nirekin, gizon, eliza horretaraxe. Hortxe dago nire ugazaba eta laster duzu eskuan dirua. Egon hementxe –esan zion elizpean sartu zirenean-, neuk abadea bertora ekarri arte.

Urrunago aitortegira joan zen.

– Jauna: han ate ondoan agiri den gizona konfesatzera dator. Dirua eta dirua noizean behin aipatuko dizu. Gizagaixoa ergela da.

– Etortzeko esaiozu.

– Joateko dio –zioen gero estudianteak ahari jabeari-. Hantxe, zokondo hartako aitortegian dago.

Saltzailea urreratu eta zutun-zutunik eta isil-isilik zegoen.

– Belaunika zaitetz –esan zion abadeak.

– Diru bila nator, jauna.

- Ze diru eta diru-ondo?

- Ahariaren dirua.

- Esadazu gizagaixo horrek ni bekataria, dirua geroko itxita.

- Dirua behar dudala. Elizetan ere lapurretan?

Abadea muturtu zitzaion eta zokondoan zuen makilaz (herrena zen bera eta pipermina bezalako sutua) erdi alarauka elizatik atera zuen.

Orduko ihes eginda zegoen eroslea ahari eta guzti. Batek badaki nondik nora joan zen.

Hirugarrena azoka-inguruko okintza baten sartu zen. Ogi eder bi erosita,

- Erdu dirua hartzera neure ugazabaren etxera –esan zion jabeari.

Handik urritxo bizi zen barberu tabernara joan ziren biak.

- Zaude hementxe, goian naizen artean.

Ogi jabea ateetan utzi eta ikaslea gora. Atean hots eginda,

- Nor da?- esan zion.

- Neu-. Atarian gizon bat dago labatiba nahi lukeena eta.

- Egoteko apur baten. Gertu dagoenean dei egingo zaiola esaiozu.

Jaitsi zen ikaslea.

- Eurek dei egingo dizutela eta egoteko.

Egon eta egon, luzaro iritzi zitzaion ogidunari eta halako baten kisketari (aldabari) hots handi batzuk eraginda,

- Gertu gaude? –itaundu zion goikoari.

- Olako estualdia daukagu? Erdu.

Heldu zeneko,

- Galtzak erantzi itzazu -esan zion barberuaren semeak.

- Ze galtza eta galtza-ondo? Dirua behar dut nik.

Aita-semeen artean oratuta, galtzak beratuaz eman zioten zer hori eta saritzat pezeta bi katanarrutik atera eraginda, bere bidean bidali zuten ogiduna.

Hiru ikasleak, elkar bat eginda, okotzeraino bete arteko jan edana egin zuten iluntze hartan.

Resurrección María de Azkue

Euskalerrriaren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989